

PLAZA BERRI

ZIZURKILGO HERRI ALDIZKARIA

16-12-27 20. ALEA



**Itxura berria, plaza
zaharrarentzat**

6. ORR. ➡



2016, Plazidaren urtea

Plazida Otaño Aiztondoko liburutegiaren inagurazioak markatu du amaitzear den urtea. Bertara bideratu da Udaleko inbertsioen zati handien handiena. Hilabeteotako bilakaera ikusita, herriaren erdigunean kultur eremu bizi-bizia sortu dela bistan da.



*Hizkiak hitz, hitzak lerro
eta lerroak pasarte
bihurtzean hizkuntza bat
bilaka liteke arte.*

*Liburua hasieratik
azken orrialdera arte,
mundu berri paralelo
majikora daramate.*

*Liburutegia denez
liburu eskaparate,
jakinduria iturri*

*eta gozamen uharte
txoko hau egon dadila
bere leiho bere ate
munduari irekia
eta mundutik aparte.*

Doinua: Habanera
Unai Mendizabal
2016-04-23

ERREPORTAIA

Zubimusuko lanak, atzerapen bat bestearen atzetik

Zizurkilgo Udalak hilabeteotan gertatu den guztia azaldu nahi izan du.

Eusko Jaurlaritzaren URA agentziak duen proiektuaren zati bat da Zubimusukoa. "Urak bideratzeko Zizurkil eta Villabonan zegoen proiektua Zizurkildik igarotzen den Asteasu Errekan hasi eta Zubimusun amaitzen zen. Diru mozketak garaiak etorritakoan ordea, erabaki zuten Zizurkilgo zatia, garestiena dena, gerorako uztea eta Zubimusukoa egitea" azaldu du Joxe Mari Luengo alkateak. Obrek helburu argia zuten: Zubiaren bi begi bota ibaia-zen zabaleroa handitzeko eta Villabonako ur zikinak bideratzea, bideratu gabe zeudelako eta erreka botatzen zirelako zuzenean. Zubiaren erdiko zatia bere horretan utzi behar zen nahitaez ondare jotzen delako.

Urtarrilean itxi zen zubia lanak egiteko, baina geroztik pasa dena atzerapen eten-gabeen kronika izan da.

Lehen atzerapena: "Lanak hasi eta gutxira izan zen lehena. Ura agentziakoak ohartu ziren errepidea Al-dundiarena zela eta ez zu-

tela eskaerarik egin. Orduan lehen aldiz geratu egin ziren lanak. Hor hilabete pasa zen. Lanak hasita zeudenez, zubia itxita zegoen, baina ezer egin gabe egon ziren baime-na ez eskatzeagatik".

Bigarren atzerapena: "Argiteriak eragin du beste atzerapen bat. Villabonako

Udalak, Iban Agirre alkate zela, hitz eman zuen eurek jarriko zutela argi koadroa eta eurek bideratuko zutela gaia. Villabona aldeko argia jarri eta legeztatu behar zuten. Ez zuten ordea, garaiz egin eta ondorioz zubia ireki ostean berriz itxi behar izan zen argiteria jartzeko. Eta

«Mugikortasun arauak aldatu egin dira eta URA agentziak ez zuen hori kontuan hartu»



Ura agentzia, lanen arduraduna

Uraren Euskal Agentzia Jaur-laritzaren ingurumen sailari atxikitako agentzia da. Euskal Autonomía Erkidegoko uraren arloko politika aurrera eramatea da bere zeregina.

Bere web orrian zehaztutako helburuen arabera, Euskadiko ibaien ur kalitatea hobetzea eta saneamendu planak amaitzea lirakeke bere helburu nagu-

sietako bi. Baina era berean, Uraren Euskal agentziaren eskumena da uraren inguruan dauden arrisku egoerak murriztea, batez ere uholde arriskuei dagokienean. Azken honetan sartuko litzateke bereziki Zubimusun egindako lana eta baita Zizurkil en egiteko geratzen dena. 150 pertsonak lan egiten du Ura agentzian gaur egun.

orain, jarri dute, baina legezkatzea ahaztu egin zaie. Horregatik dago egunotan Zizurkil aldeko farola piztuta eta Villabonakoa itzalita”.

Hirugarren atzerapena: “Errepidearen tamainarekin dauden arazoak izan dira azkena. 2014tik hona mugikortasun arauak aldatu egin dira. Autobus berriak

lehen baino luzeagoak eta zabalagoak dira. Lehen 11 metrokoak ziren eta orain 13koak dira eta gainera 15 zm zabalagoak. URA agentziak ez zuen hori gogoan hartu eta horrek eragin du autobusak pasa ezina. Azkenean, mila jira bueltaren ostean erabaki dutena da bidegorriko piboteak kentzea Villabonako



zatian, zubi amaieratik kale nagusira arte. Horrela aurreikusten da autobusari maniobra emateko lekua uzten zaiola. Baina zein da arazoa? Hori egiteko ere Villabonako Udalak onartu behar duela eta atzeratu egin da dena. Eta okerrean, osteria ere itxi egingo dutela lan horiek egiteko”.

Zizurkilgo Udala mugatuta sentitu da hilabete guztietan. “Ez dugu zalaparta sortu nahi izan orain artean baina iruditzen zaigu guk ez dugula jasan behar gurea ez den ardurarik eta herritarrek egia jakin behar dutela. Barkamenak eskatu behar dizkiegu denei. Guk

Zubimusu, un retraso tras otro

La agencia URA del Gobierno Vasco es la responsable del proyecto de Zubimusu. “El proyecto del encauzamiento original comenzaba aguas arriba en Asteasu erreka y terminaba en Zubimusu, pero por motivos económicos decidieron separar en dos el proyecto y ejecutar ahora la menos costosa, la de Zubimusu”, explica el alcalde de Joxe Mari Luengo.

En principio, el objetivo de las obras era eliminar dos ojos del puente, ampliando el cauce del río y unir las aguas residuales de Villabona al colector de Aduna. Sin embargo, desde el comienzo de los trabajos, los retrasos han sido continuos:

–“El primer retraso fue al poco de comenzar, ya que la agencia Ura no pidió el debido permiso a la Diputación, res-

ponsable de la carretera. Por ello, se paró la obra durante un mes con el puente ya cerrado”.

–“El segundo retraso se ha debido a la iluminación. El Ayuntamiento de Villabona se hizo cargo de ello cuando Iban Agirre era alcalde, pero no han llegado a tiempo. Por ese motivo, tras haber sido abierto, se tuvo que cerrar nuevamente el puente para

instalar la iluminación”.

–“La anchura de la carretera ha sido el tercer factor que ha retrasado las obras. Desde 2014 han cambiado las normas y los nuevos autobuses son ahora más anchos y sobre todo más largos. No obstante, en la agencia Ura no contemplaron ese hecho. Finalmente, han decidido eliminar los pivotes en la parte final del

«Ez dugu jasan behar gurea ez den ardurarik»

ez dugu inongo zerikusirik izan proiektu honekin eta ahalegina egin arren gauzak bideratzeko argi dago ezinezkoa izan dela. Hori bai, askotan aurpegia guk eman behar izan dugu”, gogoratu du alkateak.

Zizurkilen hobekuntzak

Lan horiekin batera, Aurrera parean harri lubeta edo *escollera* bat egitea eskatu zen Udaletik. “Onartu zuten baina azkenean ez da guk nahi adinakoa egin, Ura agentziak berak ez duelako guk nahi adinako horma egitea baimendu. Ez gara gustora geratu egin dutenarekin eta bertan lanean ari ziren enpresakoek ere onartu dute hori, baina Jaurilaritzak ez die gehiago egiten utzi. Lehen

baino hobeto dago baina zalantzak ditugu Udalean urak gora egitean zer erantzun emango duen”. Emaizta baikorragoa izan da paper fabrikarekin egindako lana. “Paper fabrika inguruan zati bat dragatu dute, urteetan egin ez den lana da. Gainera, lehen hitzekoa zen akordioa orain idatzizko protokolo bihurtu da, beraz, Udala gainean egon gabe ere fabrikakoak behartuta daude presa altxatzera eurite handiak daudenean”, zehaztu du alkateak.

Lan horiek egin arren, Luengok errepikatu du urak bideratzeko lanen bigarren zatia egin gabe geratu dela, plaza ingurutik hasi eta paper fabrikara arteko lanak izango lirateke ibaia lur gainera atera eta zabaltzeko. “Guk jarraituko dugu eskatzen. Horiek lirateke behin betiko lanak Zizurkildik uholde arriskua ezabatze-ko”.

Oinezko zubiko argiteria lantzen

Oinezko zubiko argiteria hobetzea Ubareko auzotarren aspaldiko eskaera da. Gai honekin gertatu dena ere azaldu nahi izan du alkateak. “Villabona geratu zen berak landuko zuela argiteriaren proiektua baina alkate aldaketarekin

ezerezean geratu da. Azkenean guk hartu dugu gure gain eta proiektua egin eta Villabonari aurkeztuko diogu”. Aurreikuspenen arabera, 2017an egingo da argiteria berriaren ezartzea.



punte, hasta la entrada a Kale Nagusia. Con ello esperan que el autobús maniobre, pero para realizar estas obras el Ayuntamiento de Villabona tiene que darle el visto bueno. En consecuencia, será necesario volver a cerrar el puente para realizar estos trabajos”.

El Ayuntamiento de Zizurkil quiere pedir perdón a todos los vecinos y vecinas. “No

hemos tenido nada que ver con el proyecto, pero, al final, hemos sido los y las zizurkildarras los más perjudicados. Hasta ahora no hemos querido polemizar, pero creemos que no debemos cargar con responsabilidades que son de otros”.

Alguna mejora

Junto a este proyecto, se

han realizado algunas mejoras en Zizurkil. “Tras negociar con ellos, se acordó construir una escollera frente a la casa Aurrera. Sin embargo, al final no se ha realizado el muro que nos hubiese gustado, porque la misma agencia Ura no lo ha permitido. Está mejor que antes, pero tenemos dudas de su respuesta en caso de que el río crezca”, explica

el alcalde. Lo que sí se ha mejorado ha sido el convenio que tenían con la papelera. “Han dragado una zona para bajar el nivel del agua y se ha puesto por escrito el convenio por el que están obligados a levantar la barrera de la presa en caso de registrarse fuertes lluvias. Hasta ahora teníamos que estar vigilantes desde el Ayuntamiento”.

“XXI. mendeko

Abenduaren 20an aurkeztu zen herritarren aurrean plaza berriaren proiektua. Plazaberri Joxe Mari Luengo alkatearekin elkartu da

P. M. Otaño plaza berriko proiektua eraikitzen hasi aurreko azken fasean sartu da, Udal teknikari eta ardurdunen oniritzia jaso ostean. Herritarren aurrean aurkeztu zen abenduaren 20an, bertan ekarpenak jaso eta horiek aztertu ostean, esleitzeko prozesua hasikoa da. Batzarraren aurretik elkartu gara Joxe Mari Luengo alkatearekin.

Ezaugarri deigarrietakoa aipatu digu hasieran Luengok. “Plazako altuera igo egingo da. Gutxi gora behera Iriarte pareko espaloia al-tuerara iritsiko da. Ondorioz plazara sartzeko igoera bat izango da eta ateratzean jaitsiera bat. Abiadura murriztea da neurri horren helburua, kotxean datorrena ohartu dadila plaza inguru batera sartzera doala”.

Trafikoaren arazoa

Plaza berria diseinatzean, trafikoarena izan da buru hauste nagusia. “Trafikoa uneotan ezin dugu plazatik atera, eta hori kontuan izan da egin behar da proiektua, erabateko peatonalizazioa ezin dugulako planteatu”, nabarmendu du. Plazatik trafikoa erabat atera ezin denez, abiadura eta ibilgailu emaria murriztea izan dira helburuak. “Kotxeentzat bide bat zehaztuta egongo da, traile-rra pasatuko dela ere aztertu dugu. Hori bai gainontzekoa plazako espazio librea izango da. Autobus geltokia eliz atzean jarriko da, horretarako bertan lan batzuk egingo dira autobusak buelta bertan eman dezaten eta plazara sartzeko eragozteko. Plazara sartuko den autobus bakarra Asteasura joan behar duena da”, zehaztu du alkateak.

Trafikoaren norabidea ez da aldatuko, “ez dugu aukera handirik aldatzeko, norabideak orain arteko berberak izango dira”. Noski, kotxeak ezingo dira aparkatu baina karga deskarga eremu txiki bat egongo dela aurreratu du Luengok.



Lurzorua eta azpiegitura

Zorurako, galtzada harri edo adokina erabiliko da eta kotxeak pasatzeko markatutako bidean berriz adokinarekin ondo uztartu nahi den hormigoia. “Kontuan hartu dugu trafiko pisutsua ere pasatzen dela plazatik, azkenean hori da errealitatea. Epe motzean plaza ez puskatzea da helburua”. Lurra jarri aurretik ordea, azpiegitura guztia berrituko da. “Hiri altzariak (bankuak, farolak...), argiteria, lur azpiko kable eta hodiak, eta zuhaitza

Nueva era para la vieja plaza

El 20 de diciembre se presentó ante los vecinos y vecinas el proyecto de la nueva plaza P. M. Otaño.

Una de las principales características de la nueva plaza será el cambio de altitud. “La altitud de la plaza subirá

un poco, más o menos hasta la acera de la casa de cultura Iriarte. Así, para entrar a la plaza en coche habrá una pequeña subida y al salir una bajada. El objetivo es que los vehículos reduzcan la velocidad, que el que circule en

coche se de cuenta de que entra en una plaza”.

El tráfico ha sido uno de los obstáculos a tener en cuenta en el proyecto. “En estos momentos no podemos sacar el tráfico de la plaza, por lo que hemos tenido que realizar el

proyecto contemplando esta realidad. Lo que hemos intentado es aminorar la velocidad y, en el caso del autobús, evitar que entre en la plaza. Para ello, se construirá una parada detrás de la iglesia y se acondicionará para que los autobu-

plaza izango du herriguneak"



bera ere bai, noski. Argi gisa LED-ak jarriko dira, egiten dugun obra bakoitzean ohi dugun moduan".

1.000 m2 da plazako eremua. Udal arduradunek egindako aurreikuspenaren arabera, 212.000 euroko aurrekontua izango du proiektuak BEZ-a barne. Dena den herritarren ekarpenekin hainbat xehetasun ber-aztertzen ari dira orain. Herritarrek bereziki festetarako plazaren erabilera egoki garatzeko arazoak eta trafikorekin azaldu zituzten kezak.

Hiru hilabete

Lanen hasiera datak jartzea beti izaten da zaila. "Urte bukaerarako hastea genuen helburua baina urte amaieran jendeari aurkeztu eta ekarpenak jasotzera iritsi gara. Udaberrirako hasiko dela aurreikusten dugu eta hiru bat hilabete iraungo dute lanek".

Lanek, noski, eragozpenak eragingo dituzte herrigunean. "Trafikoa une batzuetan norabide batean edo bestean moztuko da baina saiatuko gara abisatzen behar den mo-

Etxe Maite proiektua

Zizurkil goian plazarena ez da epe motzean aurreikusten den aldaketa bakarra. Eraikitzaile batek etxe jabeekin akordioa lortuta, plan orokorrean jasota zegoen moduan, Etxe Maite gunean etxebizitzak eraikitzeko asmoa martxan da. "7 etxebizitza eraikitzeko proiektua ari dira garatzen. 125 metroko etxebizitzak, 60 metroko garajearekin", zehaztu du alkateak.

Udaletik aparkaleku eta errepideen gaia bideratu dute. "11 aparkaleku egingo dituzte

etxeen paralelo eta Asteasu bidetik datorren errepidea goiko zatitik zabaldu egingo da aparkaleku horiek egiteko. Aldundiaren baimena lortu da hori egiteko. Hasieran zabaldu egingo da bidea aparkalekuak egiteko eta gero estutu, plaza sartzearan abiadura murrizteko", azaldu du.

Ekimena garatzeko behar zen aldaketa onartu berri du azaroko udalbatzak EH Bildu eta PSEren babesarekin eta EAJren abstentzioarekin.

duan. Uneren batean erabat moztu beharra ere etor liteke eta bide alternatiboak erabili beharko dira. Badakigu eragozpen une horiek amorragarriak direla bizilagunentzat baina plazak aspalditik behar zuen berritu bat eta pazientzia eskatzen diegu".

Mezu batekin amaitu nahi izan du alkateak. "Orain bai,

Zizurkil goiak edo herriguneak XXI. mendeko plaza izango du, ez orain dagoena, zuloz betea eta erabat zaharkitua. Lehen Joxe Arregi plaza egin genuen moduan orain P.M. Otaño plazaren txanda da, erabat ezberdinak izango dira, bakoitzak bere errealitatea duelako, baina behar garrantzitsua zuten biek ere".

ses puedan dar la vuelta en el lugar".

Adoquin

La plaza será adoquinada "Teniendo en cuenta el tráfico, se utilizará hormigón en el área marcado para el tráfico. El obje-

tivo es que no se rompa en pocos años." La plaza contará con un mobiliario nuevo, nuevas farolas LED y también se renovarán por completo las tuberías. El espacio de la plaza es de unos 1.000 m2, y el presupuesto es de 212.000 euros, IVA incluido.

Se espera que los trabajos de remodelación empiecen antes de primavera y que se ejecuten en tres meses. "Habrán cortes de tráfico y, por lo tanto, pedimos paciencia", adelanta. "Es un proyecto necesario que se ha demorado muchos

años, y tras la obras, por fin, la plaza P.M. Otaño se convertirá en una plaza del siglo XXI. Renovar los núcleos urbanos era uno de nuestros objetivos, que paso a paso estamos realizando teniendo en cuenta las características de cada plaza".

GU GARA GILTZARRIA
HANDIA EGITERA GOAZ
Aiztondon ere ba

Etorkizunaz gale

8

Martxoaren 19an galdeketa egin asmoz, sinadurak biltzen ari da Zizurkilgo Gure Esku Dago. Urtarrilaren 15era bitarte ariko dira bilketan eskualdeko taldeak eta gabonetan ere izango da ekimenera atxikitze abagunea.



Euskal Herriaren estatus politikoa erabakitze 2014an lehen galdeketa egin zirenetik, gero eta herri gehiagok eman dute urrats bera Gure Esku

Dago herri mugimenduaren eskutik. Etxarri-Aranatzen eta Arrankudiagan egin ziren orduan galdeketa eta, orain Tolosaldearen txanda izango da. Martxoaren 19rako zehaztu da hitzordua eskualdean, tartean, Zizurkilen.

Lanean da Zizurkilgo Gure Esku Dago; asteartero biltzen dira, aste batean Iriarten eta bestean Atxulondon. Gaurkoan, Iriarten biltzekoan topatu ditugu: "10-12 bat lagun elkartzen gara" azaldu digu bertako kide den Iker Urruzolak. Sinadura bilketan buru belarri dabilta orain. Izan ere, gutxieneko sinadura kopuru jakin bat lortu behar da, galdeketa zilegitasuna izan dezan. 16 urtetik gorako sinadurak biltzen dabilta eta biztanleriaren lagin

horren %10 lortu behar da gutxienez: "Zizurkil bakarrik aintzat hartuz gero, 100 bat sinadura-edo falta zaizkigu muga hori gainditzeko".

Dena den, eskualde osoko %10 lortzeko lanean dira herri ezberdinetako Gure Esku Dago taldeak. Tolosaldeko mahai sustatzailean elkartzen dira herrietako ordezkariak, beren artean koordinatu eta elkarren berri emateko. Berezi Amasa-Villabonakoekin hartu-eman etengabe dabilta zizurkil-darrak, elkarlanean.

Azaroaren 26an hasi zen sinadura bilketari Zizurkilen. Danena eta Villabonako taldeen arteko derbian, Aiztondoko futbol jokalariek galdeketa babesa adierazi zuten eta, era berean, hasiera eman zitzaion sinadura bilketari. Egun horretan bertan Urrezko Azkolarien Kopako final laurdenak jokatu ziren Zizurkilgo Intxaur frontoian eta han ere sinadura emateko mahaia atondu zuen Gure Esku Dagok. Abenduan zehar ere izan dira aukerak: Pello

detzeko **unea** iritsi da

Mari Otaño Bertso-paper Lehiaketaren sari banaketan, Gau Krossean eta Zizurkilgo VI. Pilota Txapelketako finalen, esate baterako.

Sinadurak, urtarilaren 15era bitarte

Askok oraindik gogoan izango dute iaz abenduaren 31n Zizurkil eta Amasa-Villabona batzen dituzten zubien

inguruan egindako ekimena, eta aurtun ere izango da atxikimendurako aukera. Galdeketa gauzatzeko sinadurak bilketa urtarilaren 15era bitarte egingo da eta, hala, gabonetako egun hauetan izango da ekimenari babesa emateko aukera: Abenduaren 24an, eguerdian, Zizurkilgoian eman ahal izango da sinadura eta 17:00etatik aurrera

Joxe Arregi plazan; 27an, Amasa-Villabona eta Zizurkil lotzen dituen zubian; eta 31n, arratsaldean, Joxe Arregi plazan. Sinadura horiek ahalbidetuko dute martxoaren 19rako zehaztutako galdeketa.

Urtarrilaren 15etik aurrera ere lanean jarraituko du Gure Esku Dagok martxoaren 19ra begira; eta laster izango dugu hurrengo urratsen berri.



Recogida de firmas por parte de Gure Esku Dago

Con el fin de realizar la consulta sobre el estatus político de Euskal Herria en Zizurkil, el movimiento popular Gure Esku Dago ha comenzado una recogida de firmas que se alargará hasta el 15 de enero. Esas firmas, junto con las recogidas en toda Tolosaldea, posibilitarán y legitimarán la consulta que se prevé celebrar el 19 de marzo en los municipios de la comarca.

Para ello, se deben de conseguir firmas del 10% de la

población mayor de 16 años. En Zizurkil quedan alrededor de 100 firmas para superar ese número. De todas maneras, las y los dinamizadores de la iniciativa repartidos por Tolosaldea están trabajando en conjunto para conseguir el 10% de toda la comarca.

Gure Esku Dago de Zizurkil está trabajando con ahínco para recoger esas firmas, además de promover la iniciativa. Actualmente el grupo lo forman entre 10 y 12 miembros

que se reúnen cada martes, alternando reuniones en Atxulondo e Iriarte. Comenzaron con la recogida el 26 de noviembre en el partido de fútbol que tuvo lugar en el campo del Danena y en el que los jugadores de la comarca mostraron su apoyo a la consulta. Desde entonces, la campaña de Gure Esku Dago ha estado presente en los eventos más destacados de Zizurkil: en el bertso-afari que se celebró a razón del

Campeonato Pello Mari Otaño, en la Gau Krossa o en los partidos de pelota que se jugaron ese mismo fin de semana.

De aquí en adelante, también se podrá apoyar la iniciativa firmando en las siguientes fechas: el 24 de diciembre al mediodía en Zizurkil Goia y a partir de las 17:00 en Elbarrena; el 27, en el puente peatonal entre Zizurkil y Amasa-Villabona; y el día 31, por la tarde, en la plaza Joxe Arregi.

Danenatik El Salvadorrera

Danenak futbolerako ekipazioa bildu eta Meanguerara bidali du

Danena Futbol Klubak elkartasun keinu batez amaitu nahi izan du urtea. Zizurkil eta El Salvadorreko Meanguera herria lotzen dituen lokarriak sendotu egin dira burutu duten ekintza xume bati esker: "Biltegia ordenatzen ari ginela, dagoeneko erabiltzen ez ditugun erropa mordoa aurkitu genuen. Bota beharrean, Zizurkil Meanguera herriarekin senidetuta zegoela gogoratu ginen eta hara bidaltzea bururatu zitzaigun", azaldu du Josu Sarasola Danenako lehendakariak. Udal ordezkariarekin hitz egin ondoren, azaroan Mikel Arrastoa herritarra Euskal Fundazioa-ko presidente or-

dea, hara zihoala aprobe-txatuz bidali zuten guztia. "Ekipazioa osatze aldera, klubeko familia guztiei haurrei txiki geratutako oinetakoak ekartzeko eskatu genien. Erantzun bikaina izan zuen deialdiak: aste beteko epean 40 zapatila pare batu genituen", aitortu du pozik Sarasolak eta bide batez, eskerrak emateko baliatu du aukera. Horrekin batera baloi batzuk ere sartu zituzten paketeetan.

Helmuga, Meanguera

Danenaren ekarpena bere helmugara iritsi izanaren baieztapena lehen eskutik eta Zizurkilen bertan jaso ahal izan dugu. Izan ere, *Esta*

Danena, Txirrindulari taldea sortzeko asmotan

Martxa ederra dago Danena taldean azken urteetan. Txirrindularitzari heldu nahi diote orain. "2007an Irrintzi desagertu zenetik, Aiztondo bailaran kirol hau gustatu arren ez dago talderik. Txirrindulari probak antolatzen bailara eta Zizurkil herri emankor-rrak dira baina bailarako gazteek ez dute aukerarik bertan txirrindularitzan hasi eta probatzeko" azaldu du Ander Altuna ekimenaren sustatzaileretako bat den zizurkildarrak. Lehen ideia 2003 edo beran-

duago jaiotako hurrekin hastea da. "Hau da, benjamin, alebin eta infantil mailakoekin hasiko ginateke". Zikloturista talde bat ateratzea ere aztertzen ari dira, "bailaran txirrin-dan ibiltzea gustatzen zaien asko daude eta polita izango litzateke denak Danenako elastikopean ibiltzea bailararen izena zabalduz". Izena eman edo zalantzak argitze-ko 671.702.112 telefonora jo daiteke. Kirol ezberdinetako aukerak zabaltzen ari dira Danenak.



El Salvadorko herritarrek bisitan izan berri dira eta Danenaren ekarpena eskertu dute.

Bicicleta no me pertenece dokumentalaren proiektzioaren aitzakian, Meanguerako zinegotzi den Carlos Alberto Hernandez izan da Zizurkilen Ertamerikako ordezkari-tza batekin batera. "Danenak emandako materiala Meanguerako nesken lau futbol taldetara bideratu dugu. Oso gustura eta esker onez jaso dute oparia. Denen ize-nean mila mila esker Danenako familia handiari".

Solidaridad, de Danena a El Salvador

Los lazos que unen Zizurkil y el pueblo de Meanguera en El Salvador son ahora más fuertes. El club de fútbol Danena, ha decidido donar toda la ropa que

tenía en el almacén a los clubs de fútbol de Meanguera, municipio hermanado con Zizurkil. Se ha completado el envío con 40 pares de botas de fútbol en-

tregadas por las familias y balones. Carlos Alberto Hernandez, concejal de Meanguera, ha estado en Zizurkil recientemente debido a la proyección del do-

cumental "*Mi bicicleta no me pertenece*". Hernandez agradeció la donación que ya ha sido destinado a cuatro equipos de fútbol femeninos de Meanguera.

Kirol astea, argazkitan

2016ko kirol asteak mota ezberdinetako kirolak ikusi eta probatzeko aukera eman du beste behin. 5 argazkitan jaso ditugu hainbat une.



Txirrindako trebeziez gozatu ahal izan zen beste urte batez Joxe Arregi plazan



Danok-Danenako pultsulariek euren maila erakutsi zuten. Irudian, Ekaitz Kortajarena.



Hogeigarrenez arrakastatsua izan zen gau krosa. Irudietan gizon-
nezkoetan bigarren izan zen Sergio Román.



Kirol astean lehen aldiz emakume helduen pilota partidaz gozatu ahal izan zen.



Jokin Altuna eta Jon Erasun pilotari profesionalak Zizurkilgo txapelketaren sari banaketan izan ziren.

JON ERASUN



“Ederra litzateke Aimarrekin jokatzea”

Intxaur pilotalekutik Zizurkilgo lehen pilotari profesionala izatera.

Intxaur pilotalekuak, zer esan nahi du Jon Erasunentzat?

Etiket gertu izan dudana frontoia, txikitana hamaika ordu sartutakoa. Frontoi kuttuna, herrikoa.

Txikitako zer oroitzen duzu?

Esolatik irten eta pilotan ibiltzen ginela, frontoi handian ez bazen zimetarioan ibiltzen ginen. Nik afizioa betidanik izan dut eta gustora ibili izan naiz. Beste kirolak aldiz, ikusi bai baina oso gutxitan egin ditut nik neuk.

Profesionala izateko, ametsa betetzea izan al da?

Bai, pilotari batentzat, afizionatueta hastean profesionala iritea da helburua. Lan asko egin behar da, zortea ere behar duzu, eta aukera eman didate.

Zein amets geratzen zaizu betetzeko?

Orain pixkanaka ohitzen joatea. Mailara egokitzea da lehen lana, pilotak ezberdinak dira, beste abia-

dura batean jokatzen da. Profesionalen denbora gutxiago duzu pentsatzeko, azkar mugitu behar duzu, profesionalen azkar doa dena. Egokitze denbora behar da.

Peru Labaka, zer da zuretzat?

Txikitana elkarrekin jokatzen izan dugu, koadrilako lagunak gara eta ordu asko pasa ditugu elkarrekin frontoietan. Orain ere puntan dabil afizionatueta, aurrelari onenetakoa da uneotan afizionatu mailan.

Aitak zer irakatsi dizu?

Kirolari handia izana da eta aholkuak eman izan dizkit, zuzentzeko esan ere bai tarteka, bide honetan beti lagundu izan dit eta eskertzen diot.

Nor izan zenuen gogoan debut egunean?

Lagundu didaten guztiak, asko izan dira nire ibilbidean eta denak izan nituen gogoan. Egun polita izan zen, herritik jende asko gerturatu zen eta oroitzapen onak ditut.

Pilotan hasten ari den haur bati zer esango zenioke?

Ibiltzeko eta ibiltzeko. Teknika geroxeago ere landu daiteke baina hasieran ibiltzea da kontua, orduak sartzea. Gustakoa izanez gero, erraz egiten da, hori da garrantzitsua, gustatzea.

Pilotariren bat eredu izan al da zuretzat?

Aimar izan da niretzat eredu, pilotari onena bera

izan da niretzat. Gustatuko litzaidake berarekin jokatzeak aukera izatea. Atzelari bezala berriz Abel Barriola nabarmenduko nuke, denean ibili izan da, bi bita bezala buruz buru eta lau t´erdian.

Ikusteko beste kirolak gustatzen al zaizkizu?

Herri kirolak bereziki. Apustuak eta tartean direnean asko gustatzen zait ikustea. Aita ere hor ibilia da eta txikitatik ezagutu dudana mundua da.

Pilotaz aparte beste afiziorik?

Ezer bereziki ez. Lagunekin egotea libre naizenean.

Esaiguzu...

Herriko txoko bat?

Intxaur Frontoia

Pertsonaia bat?

P. M. Otaño

Zer dago faltan?

Soziedade bat Zizurkilgoan



B



Zizurkilgo Udala

Plaza Berri Aldizkaria
Herritarren Parte Hartze
eta Komunikazio Batzordea.

Lege-gordailua:
SS-1118-2011

Harremanetarako:
plazaberri.zizurkil@gmail.com
www.zizurkil.com

Zizurkilgo Udala,
Teodoro Hernandorena 6,
20.159 Zizurkil.
Tel. 943-691012
Fax 943-693200.

Udal Bulegoak,
Ernio Bidea 9A, behean,
20.159 Zizurkil.
Harrera Orokorra
Tel. 943-693066
Kultura, Euskara, Hezkuntza,
Gazteria y Kirola Saila
Tel. 943692495
Fax 943-693674.